

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2022ko maiatza

Aurkibidea

1. Hazkunde ekonomikoa
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Inguruneko hazkundera
5. Enpresen konfiantza
6. NDFren aurreikuspenak
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. EAEko ekonomia %5,7 hazi zen lehen hiruhilekoan.

Enplegua %5,0 areagotu zen aurreko urteko epe beraren aldean.

2. Landunen kopurua %3,1 igo zen Euskadin lehen hiru hilekoetan.

Eraikuntzak eta zerbitzuek oso bilakaera ona erakutsi dute urte arteko tasan.

3. Energiak eta elikagaiek %9,5era eraman zuten inflazioa martxoan.

Azpiko inflazioa %3,6an kokatu da, indize orokorretik urrun.

4. Ekonomia nagusiek ondo erantzun diote gerrako gatazkari eta prezioen gorakadari.

Europar Batasuneko BPG %5,2 hazi zen aurtengo lehen hiruhilekoan.

5. Enpresarien konfiantza igo egin zen apirilean, zerbitzuei esker.

Aitzitik, manufakturrek okerrera egin zuten hornigaien faltaren ondorioz.

6. Ukrainako gerrak munduko ekonomiaren susperraldia kaltetu du.

NDFk %3,6an utzi du munduko hazkundera 2022an eta 2023an.

7. Hilabeteko laburpena.

BPGaren bilakaera ona, baina zalantzekin.

EAEko ekonomia %5,7 hazi zen lehen hiruhilekoan


BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO BPGA.

1. HIRUHILEKOA

%5,7



Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenak adierazten du EAEko ekonomia %5,7 hazi zela 2022ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Beraz, 2021eko laugarren hiruhilekoan hasi zen erritmoa bizkortzeko prozesuak aurrera jarraitzen du. Kasu honetan, hazkunde erritmoaren hobekuntza puntu batekoa izan da, aurreko hiruhilekoko %4,7tik aipatutako balio horretara. Igoera meritu handikoa da aurtengo lehen hilabeteetan aurre egin beharreko zailtasu-

nak kontuan hartzen badira: pandemia, prezioen igoera, Ukrainako gerra eta hornidurarik eza, garrantzitsuenetako batzuk aipatzearren.

Hiruhileko arteko tasan, aldakuntza tasa %1,0 izan zen, aurreko bi aldietan izandakoaren oso antzekoa baita. Ondorioz, nolabaiteko egonkortasuna nabari da hazkunde erritmoan. Aipatu behar da bi tasak oso gertu daudela Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak martxoan egindako aurreikuspenetik.


BARNE PRODUKTU GORDINA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO BPGA.

1. HIRUHILEKOA

%1,0



ENPLEGUA


Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO ENPLEGUA

1. HIRUHILEKOA

%5,0

Enpleguari dagokionez, kontu ekonomikoen aurrerapenak adierazten du lanaldi osoko lanpostu baliokideak %5,0 gehitu direla urte bate-tik bestera. Hau da, 2022ko lehen hiruhilekoan aurreko urteko aldi berekoak baino 46.300 enplegu gehiago behar izan ziren. Zifra horiek bai-eztatzen dute pandemiaren etorrerak eragin zuen geldialdiaren ondoren EAEko ekonomia-ren susperraldia oso intentsiboa izaten ari dela



enpleguan.

Hiruhileko arteko tasan, lehen hiruhilekoko hazkundea %0,9 izan zen, aurreko aldiari jasotako erritmoa baino handiagoa, baina ez da iritsi 2021eko erdiko hiruhilekoetan erregistratutakora. Hala eta guztiz ere, pandemia hasi aurreko urteetan erregistratutakoak nabarmen gaitzen dituen tasa da.


ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA

1. HIRUHILEKOA

%0,9



Iturria: Eustat.



Landunen kopurua %3,1 igo zen Euskadin lehen hiru hilekoetan


Eustatek berriki argitaratutako BJAREN datuen arabera, enplegua sortzeari dagokionez, 2022ko lehen hiruhilekoa 2002tik Euskadik izan duen urte hasierarik onena izan da. Zehazkiago adierazita, 8.300 enplegu berri sortu ziren, hau da, termino erlatiboetan, urte arteko aldakuntza tasa %3,1era igo zen. Hori horrela izanda, hazkunde nabarmen horri esker, Euskadik

gainditu egin du koronabirusaren aurreko okupazio maila, 953.800 pertsona okupatu baititu orain, hots, 2019ko azken hiruhilekoan, pandemia hasi aurretik, baino 800 gehiago. Eta bilakaera hori testuinguru negatibo batean gertatu zen, Ukrainako gerra, energiaren prezio altuak eta horniduren eskasia protagonista izan baitziren.

LANDUNAK. GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOKO LANDUNAK %3,1




LANDUNAK. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANDUNAK. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANDUNAK. INDUSTRIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Suspertze horretan, parte hartze handiagoa izaten ari da gizonezkoen biztanleria; izan ere, hiruhilekoan sortu ziren 8.300 enplegu berri horietatik ia 6.000 gizonek bete zituzten, eta, beraz, bi generoen arteko desoreka tradizionala areagotuz joan da 2021eko azken hiruhilekoan eta 2022ko lehen hiruhilekoan.

Sektoreen bilakaerari dagokionez, industria izan zen urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jaso zituen bakarra, 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan zertxobait suspertu ondoren, eta azken aldian gertatzen ari diren hornidura arazoek nabarmenago kaltetu zuten.

LANDUNAK. ERAIKUNTZA


Urte arteko aldakuntza tasa



Azkenik, bai eraikuntzak bai zerbitzuek hazkunde tasa nabarmenak eskuratu zituen, batez ere lehenengoak, bizitegien sektorearen sendotasunak mesede egin baitio sektore horri. Zerbitzuak, bestalde, pandemiaren ondoriozko murrizketak ezabatuz joan ondoren, hazkunde tasa positiboetara itzuli dira.

LANDUNAK. ZERBITZUAK

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

Energiak eta elikagaiek %9,5era eraman zuten inflazioa martxoan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Martxoan, EAEko inflazioa bi digitu ingurukoa izan zen jadanik. Zehazkiago adierazita, %9,5era igo zen eta urrun utzi zuen aurreko hilean erregistratu zuen %7,4ko balioa. Energia alorreko prezioen igoera nabarmena, Ukrainako gatazkaren ondorioak eta hornidurarik eza izan ziren inflazioaren espiral horren eragile nagusiak.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2022ko martxo	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	9,5	9,5
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	3,6	2,7
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	5,8	0,9
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	4,3	0,9
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	2,3	0,9
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	34,6	6,8
- Landu gabeko janariak (%9,3)	4,0	2,6	7,6	0,6
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	60,3	6,2


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Aurreko hilabeteetan gertatu zen bezala, argindarraren eta erregaien prezioak igo ziren gehien-iazko emaitzekin alderatuta, lehenago ere aipatu den Ukrainako gerraren ondorioz. Aurtengo martxoa argindarraren historiako hilabeterik garestiena izan zen; gasolioak, berriz, 1,9 euro inguruko zifrak izan zituen litroko, baina urtearen hasieran ez zen 1,4 eurora iristen. Garestitze hori Brent petrolioaren prezioaren goranzko kotizazioak markatu zuen, martxoaren

8an 139,9 dolarreko gehieneko prezioa izan baitzuen. Era berean, elikagaien prezioetara hedatu izana nabarmena da, nekazariak, abeltzainak eta beste industria batzuk jasaten ari diren ekoizpen kostu handiagoengatik, batez ere elektrizitatean intentsiboagoak diren industrietan. Kutsatze hori oraingoz ez da heldu azpiko inflaziora; izan ere, azpiko inflazioak gora egiten jarraitu zuen (%3,6), baina oraindik ez du bigarren txandako efekturik erakusten.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2022ko martxoa

	Euskadi	Espania	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	9,5	9,8	7,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	6,8	6,8	5,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,4	3,0	2,3
Jantziak eta oinetakoak	5,0	3,0	2,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	34,5	33,1	17,3
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	5,0	4,2	4,2
Osasuna	0,7	1,1	1,0
Garraioa	17,4	18,6	14,6
Komunikazioak	-0,5	-0,5	0,0
Aisia eta kultura	1,3	1,2	3,1
Hezkuntza	1,5	1,2	-0,9
Jatetxeak eta hotelak	4,0	4,4	5,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,2	2,8	2,2

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



INGURUNEN HAZKUNDEA

Ekonomia nagusiek ondo erantzun diote gerrako gatazkari eta prezioen gorakadari.


TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA
1. HIRUHILABETEA

%4,8

Txinako ekonomiak aurreikuspenak gainditu zituen eta %4,8 hazi zen aurtengo lehen hiruhilekoan. Lehen sektorea %6,0 hazi zen, industria %5,8ko erritmoan eta zerbitzuak, ekonomiaren %56,6 baitira jadanik, %4,0. Hiruhilekoko balantzea positiboa izan bazen ere, martxoko datuek beste dezelerazio bat islatzen dute, eta litekeena da bigarren hiruhilekoan zehar ere zabaltzea. Izan ere, kontsumo pribatua martxoan ahuldu zen, zero Covid politikaren eta Ukrainako gerraren ondorioz ezarritako murrizketa garrantzitsuegatik. Zehazki, txikizkako salmentak %3,5 jaitsi ziren.




AEBeK, bestalde, dinamismo txikiagoa izan zuten aurtengo lehen hiruhilekoan. Zehazki, bertako BPGA %3,6 hazi zen, 2021eko amaieran erregistratutako %5,5aren aldean. Hala ere, azterketak baztertu egin du, oraingoz, ekonomiaren motel-tzea, kontsumitzaileen gastua sendoa izan zelako eta inbertsio pribatua, batez ere enpresek ekipamenduan egindako inbertsioa, nabarmen bizkortu zelako. Horrek guztiak barne eskari sendoa eta egonkorra erakusten du, kanpo sektoreak egindako kenketa sobera konpentsatu zuena. Lan merkatuak ekonomiaren egoera ona bermatzen du. Martxoko langabezia tasa %3,6ra jaitsi zen.

AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa


AEBETAKO BPGA
1. HIRUHILABETEA

%3,6




EUOPAR BATASUNEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ALEMANIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Errusia eta Ukrainaren arteko gerrak ez du eragirik izan, oraingoz, Europako ekonomia nagusietan. Hala jasotzen dute Eurostatek argitaratutako lehen estimazioek, eremuaren hazkunde tasa %5,2 izan baita, aurreko hiruhilekoan erregistratutako mailaren gainetik. Argitaratutako datuen arabera, herrialde guztiek erakusten dute hazkunde erritmo handia. Alemaniak ere, gatazkak kaltetutako ekonomia nagusietako batek, bikoiztu egin zuen hazkunde erritmoa. Bigarren hiruhilekoaren bilakaera zalantzazkoa da oraindik. Gerrak aurrera jarraitzen du eta prezioak kontrolik gabe igotzen ari dira, nahiz eta apirilko PMI indizeen bilakaerak, herrialde batzuetan nolabaiteko apaltzea erakusten duten arren, hedapen handiko eremuan jarraitzen duten.


FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ITALIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE, BEA, Eurostat eta INE.



ENPRESEN KONFIANTZA

Enpresarien konfiantza igo egin zen apirilean, zerbitzuei esker


Euroaren eremuko PMI indize konposatua 55,8 mailara igo zen apirilean, martxoko datua baino ia puntu bat gorago. Adierazlearen hobekuntza hori Ukrainako gerrak eta prezioen igoera handiak, batez ere energetikoek, eragin dituzten tentsioak gorabehera gertatu da. Hobekuntzaren arrazoia zerbitzuen sektorean datza, mugikortasunaren murrizketak arindu izanaren onura jaso baitu. Izan ere, atal hau 57,7 puntura igo

da, azken zortzi hilabeteetan izan duen maximoa baita. Aitzitik, manufakturen adierazlea jaitsi egin da eta azken hogeita bi hilabeteetako balio minimoan kokatu da.


Oro har, enpleguaren sorrerak hobera egin zuen eta datozen hamabi hilabeteetarako enpresa igurikimenek gora egin zuten, nahiz eta gerraren, pandemiaren eta prezioen inguruko kezka dagoen.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2022KO APIRILA
55,8




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Industriaren eta zerbitzuen bilakaeraren arteko aldeak azaltzen du adierazle horren emaitza euroaren eremuko bi herrialde nagusietan. Izan ere, Alemanian, industriaren pisua oso altua baita bertan, apirileko indizeak sei hamarren egin zuen behera, baina oraindik ere sendotasun nabarmena erakusten du (54,5). Bestalde, Frantzian, zerbitzuen hobekuntzak 57,5 punturaino igo zuen indizea, azken lau urteetako baliorik altuena.

Europar Batasunekoak ez diren herrialde garatuetan, jaitsierak jaso ziren bai Erresuma Batuan (57,6), bai Estatu Batuetan (55,1), baina bi kasuetan indize konposatuak beren ekonomien sendotasun handia erakusten dute oraindik.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA




Iturria: Markit

NDF-REN AURREIKUSPENAK

Ukrainako gerrak munduko ekonomiaren susperraldia kaltetu du

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Apirileko txostenean, NDFk munduko hazkunde aurreikuspena aurkeztu du 2022rako eta 2023rako, beherantz berrikusia, eta %3,6koa da bi urteetarako. Ukrainako gerrak krisi humanitario larria ekarri du, eta, era berean, munduko hazkunde ekonomikoa asko moteldu da.


Ukrainako eta Errusiako BPGa amildu egingo da eta mundu mailan bigarren mailako ondorioak izango dira lehengaien merkatuetan, nazioarteko merkataritzan eta finantza kanaletan. Gerrak, BPGA murrizteaz gain, inflazioa handituko du.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2021	2022	2023	2022	2023
Munduko ekonomia	6,1	3,6	3,6	-0,8	-0,2
Ekonomia aurreratua	5,2	3,3	2,4	-0,6	-0,2
AEB	5,7	3,7	2,3	-0,3	-0,3
Eurogunea	5,3	2,8	2,3	-1,1	-0,2
Alemania	2,8	2,1	2,7	-1,7	0,2
Frantzia	7,0	2,9	1,4	-0,6	-0,4
Italia	6,6	2,3	1,7	-1,5	-0,5
Espainia	5,1	4,8	3,3	-1,0	-0,5
Erresuma Batua	7,4	3,7	1,2	-1,0	-1,1
Japonia	1,6	2,4	2,3	-0,9	0,5
Garatzen ari diren herrialdeak	6,8	3,8	4,4	-1,0	-0,3
Txina	8,1	4,4	5,1	-0,4	-0,1
India	8,9	8,2	6,9	-0,8	-0,2
Errusia	4,7	-8,5	-2,3	-11,3	-4,4
Brasil	4,6	0,8	1,4	0,5	-0,2

EKONOMIA AURRERATUAN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

AEBETAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Merkataritzaren eta diru bidalketen bidez Errusiarekin eta Ukrainarekin zuzeneko lotura sakonak dituzten ekonomiak biziki kaltetuta aterako dira, baina ondorio negatiboak berehala hedatuko dira mundu osora, estuki integratutako hornidura kateen bidez. Bestalde, prezioen gorakada oso kezka larria da, 40 urte baino gehiagotan maximo ezezaguetara iristen ari baita.

Susperraldi iraunkorra bideratuta zegoela zirudien unean, pandemiak eragindako kolapso ekonomikoaren ondoren, munduak berriz ere shock handia jasan du. Ukrainako gerrak azken hiruhilekoetako aurrerapen ekonomikoaren zati handi bat deseginda gertatzeko perspektiba sortu du.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Iturria: NDF.



BPGaren bilakaera ona, baina zalantzekin

EAEko ekonomiak urte arteko %5,7ko hazkunde tasa jaso zuen aurtengo lehen hiruhilekoan. Horrek esan nahi du **hazkunde erritmoa bizkortu egin dela aurreko bi aldiekin alderatuta**. Aipatutako tasa Ekonomia Zuzendaritzak martxoan aurreikusitakoa (%5,6) baino zertxobait handiagoa da. Hazkunde bizkor horren zati bat 2021eko hiruhileko berarekin alderatzeagatik gertatu da, oraindik tasa negatiboak izan baitzituen orduan. Hala ere, urtea amaitu arte geratzen diren hiruhilekoetan BPGaren hazkundera maila apalagoetan kokatuko da, %4aren inguruan.

Ekoizpenaren emaitza onarekin batera, lan merkatuaren hobekuntza nabarmena ere lortu da. Hain zuzen ere, lanaldi osoko lanpostu baliokideei dagokienez, lehen hiruhilekoko igoera tasa %5,0 izan zen. Lan merkatuaren berariazko inkestek bilakaera on hori berresten dute. Alde batetik, BJAren arabera, okupazioak %3,1 egin zuen gora. Bestetik, BAIk %5,8ra igo du gehikuntza tasa hori. Edonola ere, argi dago **ekonomiaren susperraldia oso intentsiboa izaten ari dela enpleguan**. Horren ondorioz, langabeziak behera egin du berriro, eta langabezia tasa %10etik behera jaisteko helburua betetzen ari da, argi eta garbi. Eustaten inkestan, tasa %9,1 da, eta INErean, berriz, %8,7.

Ekonomiak aurtengo lehen hilekoetan erakutsi duen bilakaera ona ekonomia garatu gehienetara zabal daiteke. Zehazkiago adierazita, Europar Batasuna %5,2 hazi zen eta aurreko bi aldie-tako datuak hobetu zituen. Alemaniak irudi positiboagoa eman zuen eta %3,7an kokatu zuen bere hazkunde tasa. Espainia, berriz, %6,4ra iritsi zen. Europatik kanpo ere datuak nahiko onak dira Txinan (%4,8) eta AEBetan (%3,6), Ukrainako gerrak markatutako testuinguru zail batean. **Hain zuzen ere, gatazka armatu horren ondorioz, NDFk beherantz berrikusi du munduko ekonomiaren aurtengo eta datorren urteko hazkundera**, aldakuntza tasa %3,6an kokatzeraino bi kasuetan, 0,8 eta 0,2 puntuko zuzenketekin, hurrenez hurren. Erakunde horren arabera, Europa izango da eskualde kaltetuenetako bat.

Gerraren ondorioak gainerako ekonomietara helduko diren moduetako bat inflazioa da. Gatazka-k produktu energetikoen garestitzea eragin zuen, eta igoera hori gainerako produktuetara hedatzen ari da. Egia da apirileko KPIaren emaitzak estatuan arnas apur bat eman duela, martxo-ko %9,8tik %8,4ra jaitsi baita. Hala ere, **zenbait faktorek pentsarazten dute ez dela erraza izango inflazioa azken urteetako maila apaletara berriro bideratzea**. Nazioarteko Diru Funtsaren txosten baten arabera, munduko prezioak gorantz bultzatzen dituzten lau arrazoi daude: gerra aurretik ere pairatzen zen lehengaien garestitzea, orduetik hona larriagotu egin dena; produktu batzuen eskari handia, manufaktura enpresetan botila lepo handiak sortu dituen; zerbitzuen eskaria suspertzea pandemia kontrolatuz joan ondoren; eta garatutako hainbat ekonomia garrantzitsutan eskulanaren eskasia.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
BPG	-9,9	5,6	-2,9	18,6	3,9	4,7	5,7
Barneko azken kontsumoa	-8,9	4,8	-2,5	18,1	2,4	2,7	—
Familien kontsumoa	-12,4	5,3	-3,7	22,6	2,1	3,0	—
Administrazioaren kontsumoa	3,8	3,0	1,6	5,2	3,5	1,7	—
Kapital eraketa gordina	-11,7	6,3	-1,3	21,4	3,7	4,3	—
Barne eskaria	-9,6	5,1	-2,2	18,9	2,7	3,1	—
Esportazioak	-16,1	11,8	-2,4	30,1	12,5	11,1	—
Inportazioak	-15,4	10,8	-1,4	29,8	10,2	8,1	—
Lehen arloa	-15,0	1,8	-7,1	7,8	4,6	2,6	—
Industria eta energia	-11,2	8,5	-1,1	30,2	5,5	4,3	—
Eraikuntza	-8,2	2,4	-2,4	11,5	1,3	0,5	—
Zerbitzuak	-9,0	5,0	-3,5	15,5	4,0	5,4	—
Balio erantsi gordina	-9,5	5,6	-2,9	18,4	4,2	4,8	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-13,6	5,3	-3,0	20,4	1,9	3,7	—
Enplegua	-7,7	5,5	-2,1	16,6	3,5	4,6	5,0

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2022				2022	2023
	I	II	III	IV		
BPG	5,6	4,0	4,1	4,1	4,5	4,1
Barneko azken kontsumoa	5,2	4,2	4,2	4,1	4,4	3,7
Familien kontsumoa	5,9	4,4	4,6	4,3	4,8	4,0
Administrazioaren kontsumoa	2,9	3,5	3,0	3,5	3,2	2,6
Kapital eraketa gordina	5,8	5,0	4,6	4,4	5,0	4,3
Barne eskariaren ekarpena	5,6	4,6	4,5	4,4	4,8	3,9
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	-0,6	-0,4	-0,3	-0,3	0,2
Lehen arloa	7,6	-7,5	-6,2	1,6	-1,4	-5,5
Industria	4,7	3,5	3,8	3,7	3,9	4,2
Eraikuntza	2,8	3,4	3,5	4,0	3,4	4,0
Zerbitzuak	6,1	4,3	4,4	4,4	4,8	4,2
Balio erantsi gordina	5,6	4,0	4,1	4,2	4,4	4,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	5,9	4,2	4,1	4,0	4,6	3,9
Lanaldi osoko lanpostuak	4,5	2,6	2,0	2,1	2,8	1,8
Landunak (BJA)	3,1	1,5	1,1	1,4	1,8	0,8

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
Laboral kutxa	6,3	—	Hispalink (BEGren aldak.)	4,3	2,7
Confebask	5,9	—	BBVA	3,3	2,6
CEPREDE	4,6	3,7			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	
BPG	-10,8	5,1	-4,1	17,8	3,5	5,5	6,4
Kontsumo pribatua	-12,2	4,7	-6,6	23,0	1,8	4,2	3,1
Kontsumo publikoa	3,3	3,1	4,4	4,1	3,5	0,4	0,8
Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,5	4,3	-3,3	20,6	0,3	2,8	6,8
- Aktibo finko materialak	-10,5	4,1	-3,6	23,4	-0,7	1,3	5,7
- Eraikuntzan	-9,6	-2,8	-10,5	11,2	-5,5	-3,9	1,3
- Ekipamendu ondasunetan	-12,9	16,0	8,1	49,5	7,0	9,5	12,3
- Jabetza intelektualaren produktuak	-4,3	5,5	-1,4	8,5	5,4	9,9	12,1
Nazio eskaria (ekarpena)	-8,6	4,7	-3,0	17,7	2,4	3,8	3,3
Esportazioak	-20,1	14,7	-6,7	40,4	16,1	17,9	20,8
Inportazioak	-15,2	13,9	-3,9	40,6	13,2	13,1	12,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	5,0	6,0	Mapfre Economics	5,0	4,8
BBVA	5,0	5,5	Oxford Economics	5,0	4,8
CaixaBank	5,0	5,5	Repsol	5,0	3,8
Merkataritza ganbera	5,0	4,3	Santander	5,0	4,8
CEEM-URJC	5,0	4,6	Metyis	5,0	2,9
CEPREDE-UAM	5,0	5,7	Universidad Loyola Andalucía	5,0	4,8
CEOE	5,0	4,7	Batez bestekoa	5,0	4,8
Equipo Económico (Ee)	5,0	4,6	Gobernua (2022-04)	5,1	4,3
EthiFinance Ratings	5,0	5,3	Espainiako Bankua (2022-04)	5,1	4,5
FUNCAS	5,0	4,2	Europar Batzordea (2022-02)	5,0	5,6
ICAE-UCM	5,0	5,3	NDF (2022-04)	5,1	4,8
IEE	5,0	4,3	Consensus Forecast (2022-04)	4,7	4,6
Intermoney	5,0	5,5			

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Merkataritza ganbera, CEEM-URJC, Equipo Económico (Ee), EthiFinance Ratings, ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
AEB	-3,4	5,7	0,5	12,2	4,9	5,5	3,6
Txina	2,0	8,1	18,3	7,9	4,9	4,0	4,8
Japonia	-4,5	1,8	-1,8	7,3	1,2	0,4	—
Kanada	-4,9	4,6	0,2	11,7	3,8	3,3	—
Europar Batasuna	-5,9	5,3	-0,9	14,0	4,2	4,9	5,2
Eurogunea	-6,4	5,4	-0,9	14,6	4,1	4,7	5,0
Alemania	-4,6	2,9	-2,8	10,4	2,9	1,8	3,7
Frantzia	-7,9	7,0	1,6	19,1	3,5	5,5	5,3
Erresuma Batua	-9,3	7,4	-5,0	24,5	6,9	6,6	—
Italia	-9,0	6,6	0,1	17,7	3,9	6,2	5,8
Herbehereak	-3,8	5,0	-2,0	11,0	5,3	6,4	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2022KO APIRILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AEB	3,2	2,2	7,0	3,2	3,6	3,7
Japonia	2,1	1,8	1,6	1,0	2,7	2,5
Kanada	3,9	2,8	5,2	2,5	5,5	5,4
Europar Batasuna	3,0	2,4	6,2	2,6	—	—
Eurogunea	2,8	2,3	6,5	2,4	7,0	6,8
Alemania	2,2	2,5	6,3	2,7	5,0	4,9
Frantzia	3,1	1,8	4,2	2,1	7,4	7,4
Erresuma Batua	3,9	1,4	7,2	3,9	4,1	4,2
Italia	2,7	1,9	6,2	2,1	8,9	8,7
Espainia	4,6	3,3	7,2	2,1	—	—
Herbehereak	3,2	1,8	7,3	2,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.